

ZUMARDITIK LEPROSERIRA

Jone IDIAZABAL



Zenbat dantza egin den Errenteriako Zumardian! Batez ere lehen gaur baino jende gehiago gerturatzen zen dantzatzera. Eta horietako bat, emakume alaitsua benetan, Izaskun Zipitria Urkizu zen.

Izaskunek hortaz gain, Touring-en partidu bakar bat ez zuen galtzen, nahiz eta bere osaba Karmelita berarekin haserre. Neska bat jokalarien atzetik ibiltzea okurritze ere!

16 urte arte ikasi zuen. Ayerbe ahizpekin lehenengo, Biteri eskoletan eta Ixiar Etxeberria-rekin gero. Azkenik gaue-tan Ramoni Urbietarekin josten zuen bitartean. Pekin-en lana egiteko eskeintza bat izan zuen; baina bere amaren orde-z eta noski amari utzi zion jarraitzen.

Izaskun pozik bizi zen baina bere barnekaldean kezka bat zuen, bere bizitzari zentzu bat ematea. Eta behin Karmelita Misiolarien errebista bat iritsi zitzaion eskuetara, 1954-an Indiara joan zirenekoari buruz. Eta argitxo bat piztu zitzaion! Beste edonork ezkontzea aukeratzen duen bezalaxe, berak aukera hori egin zuen, eta ez errexena. San Andres Kooperatibarako oposizio bat ateratu zuen. Baina ordurako, bere amaren ezkutuan, gonbentura deitu zuen ea onartzen zuten edo ez jakiteko, bai onartu ere. Baina amak 21 urte egin arte ez zion joateko baimenik eman. Ezezko honen ondorioz etxe-ko egoera latz xamarra bilakatu zen. Monjena joan zen hitz egitera eta gurasoen baimenik gabe ezin zutela eraman eran-tzen zioten.

Hilabete batzu pasa ondoren amak ea joan nahi zuen gal-detu zion. Noski joan nahi zuela! Erdi harremanetan zebilen mutilaren argazkia bueltatu zion. Hilabete pare batetan lagun, sendi eta ezagunei hartutako erabakia jakin arazi zion. Une hartan bakarrik aurkitu zen, lagun pare batek ulertzen zuten, baina beste askok ez.

Horrela, 1959-ko Azaroaren 5-ean, 18 urtekin, sartu zen Iruñean gonbentura. Han zegoela, Touring-a Iruñera zijoala eta aprobetxatuz, lagunek elkar ikusiko ote zuten galdetuz idatzi zioten eta bere "laguna" apaiz zijoala esanaz. Garai hartan eskutitz guztiak irakurri egiten zizkieten eta... ea zein zen mutil hori, berarentzat zer suposatzen zuen eta halako galderak egin zizkieten. Bera bere borondatez sartu zela gonbentura azaldu behar izan zuen. Egia esan reboltosa xamarra zen eta gehiago geratu ezingo ote zen bel-dur izan zen.

Iruñean 18 hilabete egin ondoren, Bartzelonara joan zen eta bi urte terdian batxilerra egin zuen. Gero Erroman enfermeriako ikasketak burutu zituen eta handik Brescia-ra eraman zuten Hospital batetan lan egitera. Italian 8 urte igaro ondoren Londresa ingelesa

ikastera joan zen. Tropikoa gaixotasunetaz zerbait ikasten zuen bitartean hango Hospital batean, 6 hilabetetan Italiako tituloaren gonbalidazioa ateratu zuen. Berak Filipinas eskatu zuen destinetzat, hura bait zuen gustoko. Baina Indian bukatu zuen 18 hilabete bisadoaren zai egon ondoren. Hiru monjek eskatu zuten eta berari eta orain oihanean dagoen Donostiako bati eman zieten baimena.

Horrela 1975-ean Gujerat-eko estatura iritsi zen Izaskun, Junagadh-eko herrian dagoen Leprosarian lan egitera. Komunidadean 15 monja bizi dira, 2 estatu espainolekoak eta beste 13-ak Indiarrak. Bakoitzak bere hizkuntza ezberdinean hitz egiten du estatu ezberdinekoak bait dira. Beraien artean ingelesez eta jendearekin gujaraty-n elkar ulertzen dute. 200.000 baino biztanle gehiago dauden herri horretan 3.000 legendun edo lepradun daude. Nahiz eta ez heredatu, garbitasun ezak eta elikadura eskasak zer ikusi handia du gaixotasun hau kutxatzerakoan. Sendiek gaixoak etxeetatik bota egiten dituzte. Eritetze batzuetan ate ondora botatzen dizkiete hartu beharreko medizinak. Eskrupulo gabeko sendagileak ere badaude, diruaren truke gaixoa engainatuta eduki eta azken mementu arte Karmelitengana edo Leproserira bidaltzen ez dutenak.

Indian reenarnazioan hainbeste sinesten dute, lepra dutenek argi ta garbi dutela madarikazio baten menpe bizi direla, ez gaixotasun batekin, aintzinako norbaiten gaiztakeria sofituz. Xomorro bat ere ez dute hiltzen aintzinakoren bat berraragitua izango den beldur. Junagadh-en dagoen Gimar mendi santuan dauden 10.000 eskailerak igo ondoren guztiz purifikatuak gelditzen omen dira. Hindu eta mahometar asko joaten dira eta egoera hau aprobetxatuz legendun mutilatu ugari eskean joaten da. Horrela gaixo hauexagatik egin zen legendundegia egin zen tokian.

Leproseriak 50 bat gaixo ditu eta Gobernuak ematen dion laguntza minimo bat dauka. Alemania eta Italiatik jasotako medizina erabiltzen dituzte. Monjak ez dira babesten, ez dute guanterik erabiltzen, agian sarna daukatenekin edo zauriak oso irekiak baldin badituzte. Aldez aurretik hartu daitekeen tratamendurik ez dago. Halaz ere ez dira beinere gaixotu. Periodikoak eta ostoa ere erabili izan dituzte zuriak garbitzeko guatarik ez zegoenean. Noski anestesia, esterilizazio edo kirofanoa ez dituzte ikusi ere egiten. Plastikozko jerin-gak berriro erabiltzeko irakin ere irakin dituzte. Izaskunek behin baino gehiagotan bere buruari galdetu izan dio "behatz bat, bi edo zer moztuko ote det oraingo hontan", ez bait daukate sensibilitaterik legena daukaten tokietan.

Odol tanta batean arrautzak jartzea gustoko dute euliek, eta ordu gutxi barru har mordo aterako da. Eta arrautzak sudurrean jartzen badituzte sudurraren ezurra jan, eztarrira pasa eta agian beharuntz segi dezakete. Erremedioa: agurrrasa bota zaurietan harrak hilaz, baina baita inguru guztia erreaz. Kokoaren olioetan alkanforra txikitu eta masa hori jarriaz berriz harrak igesean aterako dira zulutik bizirik, baina hori gaixoarentzat oso ezatsegina da.

6 edo 7 gaixo badira urte asko daramatzatenak, besteak aldatuz joaten dira. Erreakzio daukatenean joaten dira eta eskerrak! zeren etxeetan ez urik ez bainugelarik ez daukate eta beharrezkoak dira. Badaude etxetik arrastorik utzi gabe alde egin dutenak sendiak bizimodu normal bat eraman deza. 4 miloi legendun daude Indian, Afrikakin batera munduan dauden gehienak. Gobernuaren helburua 2000-rako osasuna guztientzat iristea da. Lortuko duen ikusteko dago. Argi dagoena da gaur egun, legendundegira etortzen diren gaixoak lehen baino azkarrago etortzen direla. Gazteagoak dira, telebistan ikusi dutelako edo lagun batek esan dielako agian atera zaien mantxa hori legena izan daitekeela.

Hori ona da, gehiegi zabaldu baino lehen hartuz gero sendatu bai daiteke.

India kastatan banatua dago, gauza izugarrienetako bat da, jendea zatitu eta esklabu bihurtzen dute, ezin dute bata bestea ikusi, arrazismo hutsa da. Adibidez odolez zikintzen dena emakume garbitzaileak ez du jasoko, barrendero kastakoek egin beharko dute. 2.200 umeentzat daukaten eskola batetan brahman, paria edo mahometarrak elkarrekin esertzen dira. Eskola denentzat berdina dela ikustea eta kanpoan ere denak berdinak direla txikitatik erakustea oso garrantzitsua da. Anaitasun giroa, maitasuna, ahultasunak denek ditugula, inor ez dela bestea baino gehiago gizatasun balore hauek erentzea da Karmeliten lana. Hango jendea aritu egiten da Karmelitek berek edozeinengana joateko duten askatasunaz.

Ingurukoekin heziketa lan handia dago egiteko etxeetatik gaixoak bota ez ditzaten. Bakartiak bueltatzen dira inon onartuak ez direlako, maitasuna beharrezkoa dute.

Izaskun eta bere etxeko Karmelitik adaptazio lan ugari egiten dute. Gaixoeri karroak eman hortik zehar gauzak saltzeko, josteko makinak, ahuntzak, beraien esnea saltzeko, lana bilatuz, lorazain Karmeliten etxean edo lantokietan. Etxe normalagoak izan ditzaten ere ahalegintzen dira Karmelitik. Normalean ez ura eta ez argirik ez daukate. Dagoeneko langile hauz batzutan etxeak egiten lagundu die. Ur bila monjen etxera joaten dira. Ura izateak onartze lana erreztu egin du. Etxe egokiagoak izateak ere pertsona sentiarazten die. Laguntza guzti hauekin ahalegintzen dira eskale bihur ez daitezen.

Gauza bera lortu nahi da beraien etxeko terrenoetan egin den barnetegiarekin. Hospitalean gaixo daudenean 12 urte arteko seme alabentzat da, kaleetan zehar ibil ez daitezten lapurtzen e.a. eta ofizio bat ikas dezaten. Gaixo izan direnak ere lan egingo dute, sukaldari batek eta neska batek gutxienez. Etxe honen eraikiera "Esku batuak" taldeak ordaindu du, Alemanian gestioak egiten ari dire mantenua bere kontu izan dezan. Barnetegi honen helburua jende guztiaren gustokoa ez da noski, adibidez agintarien gustoko, zedren misiolariak izilean jendearen eskubideak zeintzuk diren

irakasten dute eta horrek min ematen die. Bi urteetan nola funtzionatzen duen ikusi behar du Gobernuak lagunduko duen edo ez erabakitzeko.

India beste mundu bat omen da, beharrak agudezia erabiltzea bultzatzen du. Ez daukate guk adina gauza ezta gutxiagorik ere. Agian horrexegaitik dira hain eskerronekoak. Ingurugiroa sinpleagoa da bainan noski gauzak irakasten dira, agian hengoak baino oinarritzkoagoak. Ez duzu inoiz dagoen aberastasun guztia dastatzen, oso espiritualak dira, kontraste ugari dituzte nahiz eta batzutan errespetatzea zaila egiten zaizun, zeren superstizio hutsa diruditen zenbait ohitura dituzte, gurasoarekiko sumisioa adibidez.

Emakumeari ez zaio baliorik ematen, neska bat jaiotzen denean denak triste eta mutila bada berriz, festa. Pentsa, kasta batzuk hil egiten dituzte. Neska ezkontzeko, dote gisa, asko ordaindu behar da. Ezkontza gurasoek antolatzen dute. Ezkondu arte senarra ez dute ezagutzen eta noski neska da beti etxetik ateratzen dena. Gaur egun oraindik gertatzen da eta ez bakarrik pertsona behartsuen edo preparazio gabekoen artean. Karmeliten eskolan lan egiten duen Lizentziatu bati etxetik abisatu zioten joateko norbaitekin tratua egina zutela. Ahalik eta ondoen prestatu zen eta mutilari gehiegi iruditu zitzaion. Bigarren aldiz deitu zioten eta eskatzen zuten miloia ordaindu ezin zutelako, deusez. Hirugarrenarekin azkenean ados jarri ziren eta 15 egunetan ezkondu egin zituzten. "Nere aitak ezkontzagatik ordaindu dezakeena balio dut". Guzti honek emakumeentzat moralki izugarri suposatzen du. Nahiz eta beste norbaitekin ibili, kasu hontan bezala, ez dira ausartzen aurre egiten. Alde batetik pentsatzen dute gurasoek gizonik onena bilatuko dietela, duarik gabe. Eta bestetik aurre eginez gero sendiak, lagunak eta kastakoak bizkarra emango diete bikotea bakarrik geratuaz. Gizonaren familiak dotea edo kontratoa-ren 2. zatia garaiz kobratzen ez badu, ezinezko bizimodua egingo diote emazteari senarra eta amaginarrebak, jo eta batzutan baita hil ere. Tratu txar honen ondorioz emakume gazte askok bere burua hil izan du. Harrigarriena zera da, neska amaginarrebak izatera iristen direnean, beraiek pasa dutenaren ondoren, gogorrenetakoak izaten direla.

Emakume zapalduta dago, ez dago pertsona bezela kontsideraturik. Oso bizitza gogorra daramate, lan gogorrenak beraiek egiten dituzte, ur bila km 1 edo 2-ra joan behar izaten dute. Lehenengo gizonak eta mutikoak jango dute, soberan badago neska eta azkenik amak. Karmelitik heziketa mailan ahal duten moduan laguntzen diete, independientagoak izan daitezten eta beraietaz abusa ez dezaten.

Guk ikasi beharreko baloreak ere badituzte. Edozeini egiten dioten harrera miresgarria da, daukatena eskeiniko dizute eta ez badute, bizilagunari eskatuko diote. Ur basoa onartzen badiezu, izugarri eskertuko dizute. Sormena izugarri landua dute, edozer gauzekin jostailuak egiten dituzte. Gela txiki batean dena sartzen zaie, espazioa izugarri aprobetxatzen dakite. Intuikorrak, azkarrak, sentikorak eta maitagarriak dira. Halaber, ikasi behar ez ditugunak ere badituzte. Mendekua ez dute ahaztuko eta indarkeri artean bizi dira. Delikuentzi ugari dago, asko dagoen miseriagatik baldin bada ere, beharrezkoena ere ez izan arren bizioren bat edukiko dute, seme alabei 11 urtekin lapurtzen erakusten die.

Laguntza behar dute, hezitzen ari diren haur askori beraien gurasoak ezin die lagundu hezi gabe daudelako. Gaur egungo gurasoak hezkuntza zer den ulertzen dute eta irakasleen lankide bihurtzen dira. Amak, seme alabak agurtzerakoan bere burua kopetako bi eskinetatik helduko du gogor gero gauza bera semeeri eginaz berak duen guzia transmititze arren, indarra, samurtasuna, izpiritua.

Junagadh herritik, 120 km-ra, distrito berberan dagoen Porbandar herrian Gandhi jaio eta bizi izan zen. Noski zer ikusia izango du hango jendearen izakeran. Baita Izaskunengan ere. Izaskuni lepra edo legena ez zaio kutsatuko ez, baina bai Gandhi-ren inguruko mistizismo sutsu bat. Eta hain berekoia den gizarte "aurreratu" honetan ea Izaskunek lagunurkoarekiko duen joera kutsatzen digun.